

## zerura itzuli nahi izan ez zuen aingeruaren aldeko azken agurra\*

tarte bat utzirik zerraikion aingerua  
bere gain hartua zuen gizonari,

kotxezain batek kolpeka hartzen zuen bere zaldia turingo enparantza hartan,  
eta aberearen lepoa besarkatzen zuen ondoren negar zotinka etsian,  
eta horretan lurrera betirako erori arte,

gaur egun inguruetakoa aulki batetan dago eserita aingerua,  
ez dakigu xuxen Jenako ala Weimarko eritegiren batetan ote dagoenez

orri batzu idatzi zituen aingeruak,  
eta beroiek aipatuko ditut segidan.

neure aurrean eserita aingeru ezin zaharragoa ikusten dut,

leher eginik osotara, ez dakit berbera ote den,  
ez dakit, jakin, aingeru guztiak berbera ez ote diren;  
ez dakit, jakin, zaldi guztiak ere berbera ez ote diren,  
eta ez dakit gure harresi zaharretako zaldiaren lepora  
besarkaturik ageri den pintorea...

Ez dakigu zaldi bera ote den, gizon bera ote den,  
jainko bera ere ote den,

ez dakigu.

jainko egin zen gizona,  
eta gizon egin zen jainkoa,

berbera ote diren ez dakigu.

erdi-erditik erdibitu zen mundu arraultzea  
bere bi zatiotan

berbera ote den ez dakigu.

zeren, berbera ez baitira jadanik goian dagoen aingerua,  
jainkoaren sindromeaz asalaturik,  
eta lurreean asalaturik geratu den gizona.

zeren, mundu ero eta eri hau ezagaturik, nola bizi ote liteke nehor  
goiko zeru horretan axolakabe eta mutu?

aingeruak ez daki hemen bizitzen, nahi ere ez du;  
baina zerura itzultzeari uko egin dio.

ez dut haren izkribua berriro irakurri nahi,  
eta itzuli ere ez dut egingo.

hementxe, alboan, neure teilatuaren gainetik,  
leunki ari naiz gorantza,

hegaz noa,

imajina eta hontza naiz batera dagoeneko, hor geldi-geldirik,  
eta ez dut inora begiratzen;

betirako harrizko bihurturik,  
zabalik gelditu zaizkidan begiez  
ez dut jadanik

begiratzen ere inora.

hil egingo naiz,

eta hontza beti egongo da hor, tinko,  
teilatuaren gainean.

nitaz egingo duzue galde,  
eta ni begira egingo natzaizue.

## **réquiem por un ángel que no quiso volver al cielo\***

*seguía el ángel a cierta distancia  
al hombre que le habían encomendado  
en una plaza de Turín un cochero maltrataba a su caballo  
el hombre se abrazó al cuello del animal llorando  
y se derrumbó para siempre al suelo  
ahora el ángel está sentado en un banco de las afueras  
no sabemos si de una clínica de Jena o en Weimar*

*dejó el ángel unas páginas escritas  
de ellas he de hablar*

*sentado delante de mí tengo un ángel muy viejo y abatido*

*no sé si es el mismo*

*no sé si todos los angeles es el mismo*

*no sé si todos los caballos es el mismo*

*si el pintor abrazado al caballo de nuestros antiguos muros*

*no sabemos si es el mismo caballo el mismo hombre*

*si es el mismo dios*

*no lo sabemos*

*si el Dios que se hizo hombre*

*y el hombre que se hizo Dios*

*no sabemos si es el mismo*

*si el huevo ecuatorialmente del mundo partido en dos  
si en sus dos partes es el mismo*

*porque no es lo mismo no es ya*

*el ángel con el síndrome del dios perturbado arriba*

*si es el hombre perturbado en la tierra el mismo*

*porque cómo vivir arriba un cielo indiferente y mudo  
conociendo este mundo irracional y enfermo?*

*el ángel no sabe vivir aquí no quiere*

*pero se niega regresar al cielo*

*me niego a releer*

*a traducir su escrito*

*sobre mi tejado aquí al lado*

*me elevo levemente*

*vuelo*

*ya soy de estatua este buho inmóvil y no miro*

*ya no miro*

*con mis ojos abiertos y de piedra para siempre*

*moriré y ahí sobre el tejado seguirá el buho*

*si preguntáis por mí*

*yo os estaré mirando*

\* hemos elegido de unos cuadernos de Oteiza para aquí este texto